

ZALDIBARKO PREZIO TASATUKO ETXEBIZITZA eta UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

Euskal Autonomia Erkidegoan arazo larria ekarri du etxebizitzaren garestitzeak, izan ere, herri guztietan herritar askok eta askok ezin dute etxebizitzarik erosi, nahiz eta Konstituzioan jasotako eskubidea izan.

Gainera, udal honen xedea da, alde batetik, populazioaren hazkundera bultzatzea, biztanleen zahartze prozesuari aurre egiteko eta, bestetik, herrian zein eskualdean mugikortasun arazoak izaki oztopo arkitektonikoak dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonen aukera eskaintzea oztopo gabeko etxebizitzetan sartzeko eta etxebizitza berri horiek arrazoizko prezioetan eskuratzeko.

Horregatik, Zaldibarko Udalak jarrera aktiboa izan behar du herritarrentzako etxebizitza egokien beharrari eta arrazoizko prezioen beharrari erantzuteko.

Ordenantza honekin Udalak ahalegina egingo du etxebizitza libreen etengabeko garestitzeak ekarritako arazoa konpontzeko. Sustapen libreko etxebizitzaren prezioen goranzko joerak eragina du bazterkeria bikoitzean egoteko gero eta arrisku handiagoa duten gizarte sektoreengan: alde batetik, ez dute etxebizitza librea erosteko behar adina diru eta, bestetik, ez dute babes ofizialeko etxebizitza izateko aukerarik, erkidegoko arautegian ezarrita dauden gehieneko diru-sarrerak gaintzen dituztelako. Horretara datoz babes tasatuko erregimeneko bi etxebizitza mota horiek, egoera hori konpontzera, alegia.

Era berean, era horretako etxebizitzaren multzoan (prezio tasatukoak zein udal etxebizitza tasatuak) sartu daitezke eraikita dauden etxebizitzak birgaitzeko ekimenak. Etxeak birgaitzeak gastu handiak dakartzanez, ez da egoten aukerarik etxebizitza horiek babes ofizialekotzat jotzeko. Babes ofizialekoak ez badira ere, toki babeseko etxetzat hartu daitezke.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean, besteak beste, etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko eskumenak aitortzen dizkio Udalari. Egoera aldatu egin da. Udal hirigintzako plangintzaren exekuzioaren eta kudeaketaren bidez garatu behar zen lehen zeregin hori, baina legea aldatu denez, orain aukera dago Udalaren beraren etxebizitza politikaren bidez garatzeko hori guztia.

Udalerriak aspaldi ari ziren eskatzen etxebizitza tasatuak. Etxebizitza politika garatzeko eskakizun hori EUDEL-en bitartez bideratu dute udalerriek, izan ere, udalen eskumena ere bada etxebizitza.

Zaldibarko Udalak aspaldi hartu zituen era horretako neurriak eta Arau Subsidiarioak erabili zituen aurreikusteko legean jasotako babeseko etxebizitzaz gain “Prezio Tasatuko Etxebizitzak” aurreikusteko.

EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea Udalaren aukera hori sendotzera etorri da, Udalak aurreikusita zeukan antzerako etxebizitza mota bat jaso baita legean: etxebizitza tasatua; oinarrizko erregimen juridikoari dagokionez araubide horrek ezartzeko aukera ematen du.

Nolanahi ere, eta Legea indarrean jarri ondoren Zaldibarko Arauak berrikusi barik daudenez oraindik, bi erregimen ezarri ditugu: alde batetik, udal babespeko etxebizitzak, 2006ko lurzoruaren legea indarrean sartu aurretik diseinatutakoak eta Arau Subsidiarioetan prezio tasatuko etxebizitzatzat hartu direnak; beheko solairuetako lokalak birgaitu ondoren sortutako etxebizitzak ere hor sartzen dira. Bestetik, udal etxebizitza tasatuak daude, Zaldibarko Arau Subsidiarioak berrikusitakoan aurreikusi eta diseinatuko direnak.

Gainera, Udalak etxebizitza gaietan duen eskumena eta autonomia onartzen da, ez soilik sustapenari dagokionez, bai eta udalerrri mailan arautzeari dagokionez ere. Udal honek aukera dauka prezio tasatuko etxebizitzak arautzeko, oinarri arautzaileen bidez edota Ordenantzak erabiliz. Hain zuzen ere, lege berriak ahalmena eman die Udal ordenantzen bitartez udal etxebizitza tasatuen erregimen juridikoa gara dezaten.

Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Lege berrian honako hau dago jasota, ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAN:

4. Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira udal etxebizitza tasatutzat (UET): Euskal Herriko udalek ezartzen dituztenak, dagokion udal ordenantzaren bidez erabakita eta ordenantza horretan beren babes publikoko araubidea erregulatuta.

5. Udalaren etxebizitza tasatua ezartzeko eta erregulatzeko udal-ordenantzak gauza hauek zehaztuko ditu:

a) Etxebizitzaren eta erantsien ezaugarriak.

b) Ezartzen diren udal babeseko araubideak eta, hala badagokio, araubide orokorreko eta araubide bereziko modalitateak. Araubide berezikoak, inola ere, araubide tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak ordezkatu ahal izango ditu, 80. artikuluan xedatzen den bezala.

c) Etxebizitzon eskuratzailleak, eta etxebizitzok esleitzeko prozedura. Horri dagokionez, publikotasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete beharko dira nahitaez.

Salbuespen gisa, sustapen bakoitzetik etxebizitza-kopuru bat bereiztea erabaki daiteke, tokiko administrazioek beharizan sozialei alokairu tutelatuaren bidez edo prekarioan lagata erantzuna eman diezaien. Horrez gainera, beste bizileku emateko espedienteetarako ere bereizi ahal izango dira, goragoko taldetik kanpo baitaude.

6. Etxebizitza tasatuak eta araubide bereziko udal etxebizitza tasatuak saltzeari dagokionez, baldin eta 80. artikuluan finkatutako gutxieneko estandarrak betetzeko kontatzen badute, gehienezko prezioak ezin izango du gainditu araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioa bider 1,70 indizea. Legez edo erregelamenduz aldatu arte, etxebizitza horien onuradunen gehienezko diru-sarrerak ezin izango dute gainditu araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean dauden gehienezko diru-sarrerak bider 1,30 indizea. Nolanahi ere, udalak besteko parametro batzuk ezarri ahal izango ditu araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuetarako.

Halaber, 2/2006 Legearen 16.1 artikuluan honako hau dago jasota: “Udalaren hirigintza plangintzaren bidez, etxebizitzak babes publikoko araubide bati atxikita eraikitzeke kalifikatu ahal izango dira lursailak. Betiere, ordea, legearen 80. artikuluan aurreikusita dauden gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzeko behar den lurzoru kalifikazioa egin beharko da gutxienez”.

16. artikuluko 16. idatz-zatiaren amaieran honako hau dago jasota: “kalifikazio egintzan, lurzoru horretarako izendatutako babes mota zehaztu beharko du hirigintza antolamenduak”.

Azkenik, nabarmentzekoa da lege horren xedapen gehigarrian honako hau dagoela jasota: “Babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzek etxebizitza babestuaren kalifikazio iraunkorra edukiko dute. Ondorioz, eskualdaketarako gehienezko prezioa ezarriko zaie bere erregulazio-arauan eta haiek lehentasunez erosteko eta atzerako eskuratzeko eskubidea edukiko du, lehenik, administrazio jarduleak eta, betiere, modu subsidiarioan Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak.

Dena dela, 2/2006 Legea ezin zaie aplikatu Zaldibarren eraikiko diren prezio tasatuko etxebizitzari, honako arrazoi hauek kontuan izanda: Ordenantza hau onartu zenean indarrean zeuden arauengatik, xedapen iragankorretan jasotakoagatik eta kontzeptuak izendatzerakoan erabili izan diren izenen arteko aldeagatik. Arau Subsidiarioetan prezio tasatuko etxebizitzak agertzen dira eta legean, ostera, udal etxebizitza tasatuak aipatzen dira. Hori guztia aintzat hartuta, bi etxebizitza-sistema arautu ditugu: prezio tasatuko etxebizitzak eta udal etxebizitza tasatuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak ezarritako zehaztapenen arabera, eta etxebizitzaren alorrean Zaldibarko Udalarai aitortutako eskumenak erabilita, prezio tasatuko etxebizitzak eta udal etxebizitza tasatua arautzeko honako ordenantza hau onetsi da; ordenantza honetan Arau

Subsidiarioetan aurreikusitako etxebizitza arautzen da, arau horietan jasotako etxebizitzari ezin baitzaio aplikatu Lurzoruaren Legea. Horrezaz gain, 2/2006 Legearen xedapenen arabera Zaldibarren etorkizunean eraikiko diren etxebizitzak ere jaso dira ordenantza horretan.

ZALDIBARKO PREZIO TASATUKO ETXEBIZITZA eta UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

1. artikulua.- Xedea

Udal Ordenantza honen xedea: Prezio Tasatuko Etxebizitzen eta Zaldibarko udal etxebizitza tasatuen babes publikoko erregimena arautzea eta ezartzea.

Zaldibarko udal etxebizitza tasatuen babes publikoaren erregimena ezartzen da figura horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean jasota dagoena garatzeko. Prezio tasatuko etxebizitzak hemen xedatutakoaren arabera baino ez dira arautzen, udal aginpideari dagokionez.

2. artikulua.- UDAL BABESEKO ETXEBIZITZAREN KONTZEPTUA PREZIO TASATUKOA eta UDAL ETXEBIZITZA TASATUA

1. Udal Babeseko Etxebizitzak: Zaldibarko udalerrian, udal etxebizitza tasatutzat hartuko dira, saltzeko edo alokatzeko prezioa mugatuta dutenez eta ordenantza honetan ezarritako gainerako betekizunak betetzen dituztenez, Udalbatzak, beharrezko tramiteak egin ondoren, halakotzat jotzen dituen prezio tasatuko etxebizitzak eta Udal etxebizitza tasatuak.

2. Era berean, prezio tasatuko etxebizitzatzat hartu ahal izango dira merkataritza-lokal edo antzeko erabilera batetik aldatuta sortu diren etxebizitza berri guztiak, bai eta aurreko etxebizitza baten bereizketatik eratorritako etxebizitzak ere.

3. Prezio Tasatuko etxebizitzen eta Udal etxebizitza tasatuen (UET) izaera etxebizitza bakoitzari atxikitako garaje eta trastelekuetara ere hedatzen da.

4. Prezio Tasatuko etxebizitzak eta Udal etxebizitza tasatuen titularren edo maizterren ohiko etxebizitza iraunkorra izan behar dute, eta inola ere ezin zaie pertsona batzuei laga, eta ezin dira hutsik utzi edota bigarren etxebizitza gisa edo bizitegitarako ez diren bestelako erabileretarako erabili.

5. Prezio tasatuko etxebizitzak eta Udal etxebizitza tasatuak hirigintza plangintzan berariaz erabilera horretarako kalifikatutako lurretan nahiz prezio mugarik ez duten bizitegitarako lurzoruetan susta daitezke, hau da, Prezio tasatuko etxebizitzak eta Udal etxebizitza tasatuak (UET) sustatu eta kudeatu ahal izango dira bai erregimen babestuko etxebizitzetarako lurzoruan bai etxebizitza librerako aurreikusitako lurzoruan.

6. Prezio tasatuko etxebizitzak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean jarri aurretik onartutako Zaldibarko Plangintza Orokorraren arabera

sailkatutako bizitegi-zoruan eraikiko direnak. Era berean, multzo horretan sartzen dira beheko solairuko lokalak (komertzialak edo antzekoak) konpondu eta etxe bihurtzeko egindako birgaitze-lanak, etxebizitza bat banantzearen ondorioz sortutako bi eta hortik gorako etxebizitzak eta sustatzaileak hala eskatuta sailkapen horren barruan sartu nahi direnak, eraikiko diren lurzoruaren kalifikazioa zein den kontuan hartu gabe.

7. Udal Etxebizitza Tasatuak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean sartu ondoren onartuko den plangintza berritik edo indarrean dagoena berrikustetik osatuko den Zaldibarko Plangintza Orokorren arabera bizitegitarako lurzoruaren eraikitako etxebizitzak; eta, kasu guztietan, sustatzailearen eskariz kalifikazio horren barruan sartu nahi diren etxebizitzak, eraikiko diren lurzoruaren kalifikazioa aintzat hartu gabe.

3. artikulua.- UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK. MOTAK

Zaldibarko udal etxebizitza tasatuak bi eratakoak izango dira:

1. Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuak (UETO).
2. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuak (UETB).

Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek babes ofizialeko etxebizitza tasatuak ordezkatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean jasota dauden gutxieneko estandarrak betetze aldera.

4. artikulua.- UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BALDINTZAK ETA EZAUGARRI OROKORRAK

1. Zaldibarko prezio tasatuko etxebizitzek eta udal etxebizitza tasatuek testu honen I. eranskin gisa erantsi diren Diseinu Ordenantzei jarraituko diete. Dena dela, ezin izango dute 90 m² (s) baino gehiagoko azalera erabilgarria izan; salbuespena izango dira, bereziki familia ugariarentzat direnak izanik, 120 m² (s) edo gutxiagoko azalera dutenak. Sustapen bakoitzean halako etxebizitzak izango dira etxebizitza kopuru guztiaren 100etik 5, gehienez ere.

Familia bakarreko etxebizitzak edo etxe atxikiak badira, adierazitako azalerak %25 handitu daitezke.

2. Prezio tasatuko etxebizitza eta udal etxebizitza tasatu guztiek aparkalekua eta trastelekua izango dituzte atxikita. Bi horiek azalerak ezin izango ditu izan, hurrenez hurren, 30 m²(s) eta 10 m²(s) erabilgarri baino gehiago. Etxebizitzari atxikiak direla jaso beharko da Jabetza Erregistroan.

Dauden higiezinak birgaitzearen edo, hala badagokio, udal etxebizitza tasatuaren jatorria merkataritza-lokalaren edo antzekoaren erabilera aldaketa denean edo aurreko etxebizitza baten bereizketa denean, etxebizitza berriak ahalik eta gehien

egokituko zaizkio I. Eranskinean ezarritako diseinuari, eta salbuetsita geratuko dira aurreko puntuan ezarritako betekizunetik.

5. artikulua.- PREZIO TASATUKO ETXEBIZITZEN BERARIAZKO BALDINTZAK

1. Prezio tasatuko etxebizitza eta udal etxebizitza tasatu guztietarako izaera orokorrarekin ezarrita dauden baldintzez gain, prezio tasatuko etxebizitzek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

Erregimen orokorreko prezio tasatuko etxebizitzei eta haiei atxikitako garajeen eta trastelekuen gehieneko salmenta prezioak ezin izango du gaintitu 2,3 indizea, edozein Administrazioak sustaturiko etxebizitzetarako behin-behineko udal kalifikazioa lortzeko unean, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez; enpresa publikoek edo partikularrek sustatzen dituzten etxebizitzek ere baldintza hori bete behar dute. Sustapen pribatuko etxebizitzaren kasuan 2,5 indizera iritsi ahal izango da.

Ezarri diren gehieneko mugen barruan, sustapen bakoitzaren salmentarako prezio zehatza zehazteko, kontuan hartuko dira kokapena, kokalekua, sustapenari egotzi beharreko hirigintzako kargak,...

2.- Alokairuaz den bezainbatean, erregimen bereziko prezio tasatuko etxebizitzaren urteko errenta, etxebizitza horien gehieneko salmenta prezioaren %2,5 izango da gehienez.

3.- Prezio tasatuko etxebizitzaren onuradunen gehieneko diru-sarrera haztatuak ezin dira 1,5eko indizea baino handiagoak izan (indibidualki zein bizikidetzaren unitateka hartuta), erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean diren gehieneko diru-sarrerari dagokienez.

4.- Etxebizitzak esleitzeko lehiaketaren oinarrietan eskatu daiteke gutxieneko diru-sarrera batzuk izatea.

2. Nolanahi ere, horrelako etxebizitzaren eskatzaileek, eskabidea egiten dutenean, ordainketa burutu ahal izateko besteko diru-sarrerak dituztela egiaztatu behar dute. Hori, norbere bitartekoen bidez, beste inork bermatuta edo etxebizitza eta eranskinak eskuratzeko beharrezko hipoteka-kreditua emateko finantza-kaudimenaren gaineko bankuaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko dute. Kreditu-erakundeak zein etxebizitzak esleitu behar dituen organoa arduratu behar dira datuak egiaztatzeaz, benetan egiaztatutako diru-sarrerak zenbatekoak diren eta esleitu beharreko etxebizitzaren prezioa zenbatekoa den kontuan hartuta.

Era berean, Udalak era horretako etxebizitzaren eskatzaileen ondarea baloratu behar du. Etxebizitza librea erosteko adina ondare daukatenak era honetako etxebizitza bat eskuratzeko lehiaketatik kanpo uzteko aukera dago, baldin eta etxebizitza baino eskatzaile gehiago badago.

6. artikulua. ERREGIMEN OROKORREKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BALDINTZA ZEHATZAK

1. Udal Etxebizitza Tasatu guztietarako izaera orokorrarekin ezarrita dauden baldintzez gain, Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuei eta haiei atxikitako garajeen eta trastelekuen gehieneko salmenta prezioak ezin izango du gaintitu 2,2 indizea, edozein Administrazioak sustaturiko etxebizitzetarako behin-behineko udal kalifikazioa lortzeko unean, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez; enpresa publikoek edo partikularrek sustatzen dituzten etxebizitzek ere baldintza hori bete behar dute. Sustapen pribatuko etxebizitzaren kasuan 2,5 indizera iritsi ahal izango da.

Ezarri diren gehieneko mugen barruan, sustapen bakoitzaren salmentarako prezio zehatza zehazteko, kontuan hartuko dira kokapena, kokalekua, sustapenari egotzi beharreko hirigintzako kargak,...

Alokairuaz den bezainbatean, erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen urteko errenta, etxebizitza horien gehieneko salmenta prezioaren %2,5 izango da gehienez.

3.- Udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehieneko diru-sarrera haztatuak ezin dira 1,5eko indizea baino handiagoak izan (indibidualki zein bizikidetzaren unitateka hartuta), erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean diren gehieneko diru-sarrerari dagokienez.

4.- Etxebizitzak esleitzeko lehiaketaren oinarrietan eskatu daiteke gutxieneko diru-sarrera batzuk izatea.

2. Nolanahi ere, horrelako etxebizitzaren eskatzaileek, eskabidea egiten dutenean, ordainketa burutu ahal izateko besteko diru-sarrerak dituztela egiaztatu behar dute. Hori, norbere bitartekoen bidez, beste inork bermatuta edo etxebizitza eta eranskinak eskuratzeko beharrezko hipoteka-kreditua emateko finantza-kaudimenaren gaineko bankuaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko dute. Kreditu-erakundeak zein etxebizitzak esleitu behar dituen organoa arduratu behar dira datuak egiaztatzeaz, benetan egiaztatutako diru-sarrerak zenbatekoak diren eta esleitu beharreko etxebizitzaren prezioa zenbatekoa den kontuan hartuta.

Era berean, Udalak era horretako etxebizitzaren eskatzaileen ondarea baloratu behar du. Etxebizitza librea erosteko adina ondare daukatenak era honetako etxebizitza bat eskuratzeko lehiaketatik kanpo uzteko aukera dago, baldin eta etxebizitza baino eskatzaile gehiago badago.

7. artikulua. ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BALDINTZA ZEHATZAK

Udal etxebizitza tasatueterako oro har ezarrita dauden baldintzez gain, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1.- Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen (garaje eta trasteleku atxikiak barne) gehieneko salmenta prezioa, babes ofizialeko etxebizitza tasatuei autonomia erkidegoan aplikagarri zaizkien arauak ezarriko dute. Nolanahi ere, ezin izango dute gainditu 1,7 indizea, udal kalifikazioa eskuratzen den unean, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez.

2.- Alokairuaz den bezainbatean, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen urteko errenta, etxebizitza horien gehieneko salmenta prezioaren %2,5 izango da gehienez.

3.- Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehieneko diru-sarrera haztatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko arautegian jasotakoarekin bat kalkulatorik, ezin dira 1,3 indizea baino handiagoak izan, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean diren gehieneko diru-sarrerari dagokienez.

4.- Etxebizitzak esleitzeko lehiaketaren oinarrietan eskatu daiteke gutxieneko diru-sarrera batzuk izatea.

2. Nolanahi ere, horrelako etxebizitzaren eskatzaileek, eskabidea egiten dutenean, ordainketa burutu ahal izateko besteko diru-sarrerak dituztela egiaztatu behar dute. Hori, norbere bitartekoen bidez, beste inork bermatuta edo etxebizitza eta eranskinak eskuratzeko beharrezko hipoteka-kreditua emateko finantza-kaudimenaren gaineko bankuaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko dute. Kreditu-erakundeak zein etxebizitzak esleitu behar dituen organoa arduratu behar dira datuak egiaztatzeaz, benetan egiaztatutako diru-sarrerak zenbatekoak diren eta esleitu beharreko etxebizitzaren prezioa zenbatekoa den kontuan hartuta.

Era berean, Udalak era horretako etxebizitzaren eskatzaileen ondarea baloratu behar du. Etxebizitza librea erosteko adina ondare daukatenak era honetako etxebizitza bat eskuratzeko lehiaketatik kanpo uzteko aukera dago, baldin eta etxebizitza baino eskatzaile gehiago badago.

8. artikulua.- UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK SUSTATZEKO ERAK

Zaldibarko Prezio Tasatuko etxebizitzak eta Udal Etxebizitza tasatuak jabetza osoko erregimenean, alokairuan edo azalera eskubidea lagatzearen bitartez sustatu ahal izango dira. Honakoak izan daitezke sustatzaileak:

1.- Udala, zuzenean, edo bere tresna-erakundearen bitartez.

Edozein sustatzaile publiko edo pribatu, pertsona fisikoa zein juridikoa izanda, betiere froga bidez adierazten badu etxebizitzaren sustapen bat prezio tasatuko etxebizitzaren edo udal etxebizitza tasatuen erregimenari lotu nahi diola eta ordenantza honetako zehaztapenak betetzen baditu.

9. artikulua. PREZIO TASATUKO ETXEBIZITZEN ONURADUNENTZAKO BALDINTZA

1. Zaldibarko prezio tasatuko etxebizitzaren hartzaileak eta, horrenbestez, onuradunak hauek izango dira: pertsona fisikoak edo bizikidetzaren unitateak. Eskatzaile horiek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Eskatzaileak adinez nagusiak edo adingabe emantzipatuak izan behar dira.

b) Prezio tasatuko etxebizitzaren onuradunak –bizikidetzaren unitateko kide guztiak sartzen dira onuradunen multzoan- bete behar duten baldintza da etxebizitzarik ez edukitzea era hauetakoren batean: jabetzan –erabatekoa edo azalera- edota biziarteko gozameneko eskubide erreal bezala, etxe premia definitzen duen arautegi autonomikoaren terminoetan eta salbuespenekin. Aurreko betekizunetik salbuetsita geratzen dira etxebizitza hauek: indarrean dagoen araudian ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztenak.

2. Ez dira bizikidetzaren unitate hartuko laguntasun edo komenientzia arrazoiengatik sortu direnak. Adinez nagusiak diren bizikidetzaren unitateko kide guztiak izan beharko dira etxebizitzaren titularrak, zuzeneko ondorengoak izan ezik.

Pertsona batek eskatu arren, eskatzailea ezkondua edo Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuta badago, eta ondasunak banatzeko ezkontzako edo ondarezko erregimen ekonomikoa barik, beste bat badute, bizikidetzaren unitatea aztertzerakoan bere bikotekidea ere hartuko da aintzat ondorio guztietarako.

Bikote batek zinpean badiu harreman afektiboa daukala eta, zinpean, konpromisoa hartzen badu ezkontzeko edo Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatzeko, esleipen lehiaketan parte hartzeko bizikidetzaren unitate hartuko da bikote hori. Esleipendun izanez gero, eta salerosketa kontratua publiko bihurtu aurretik. Eskatzaileei eskriturak egiteko deitutakoan baldintza hori bete barik badago, ez betetzeak berekin ekarriko du esleipenari uko egitea. Horretara helduz gero, sustatzaileak kontratua desegingo du eta esleipendunek ez dute eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko, aurreratutako dirua jasotzeko eskubidea baino ez dute izango, baina interes barik.

Bizikidetzaren unitate gisa etxebizitza eskatuz gero, ez dago aukerarik norbanako moduan ere eskatzeko.

10. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ONURADUNENTZAKO BALDINTZA

1. Zaldibarko udal etxebizitza tasatuen hartzaileak eta, horrenbestez, onuradunak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak edo bizikidetzaren unitateak.

a) Eskatzailea edo eskatzaileak adinez nagusiak izan beharko dira, edo emantzipatutako adingabeak.

- b) Udal etxebizitza tasatuen onuradun guztiek (halakotzat hartuko dira bizikidetzaren unitateko kide guztiak) bete beharko dute beste etxebizitzarik ez izateko baldintza (jabetza osoan edo azalerakoak, zein bizi artean erabiltzeko eskubide errealean), etxebizitzaren beharrezko defintzen duen autonomiako araudian ezarritako terminoen arabera eta bertako salbuespenak salbuespen. Hala ere, salbuespena izango da duten etxebizitzak ez dituenetan betetzen arlo honetan aplikatu daitezkeen indarreko arauetan ezarritako gutxieneko bizigaitasun baldintzak.

2. Ez dira bizikidetzaren unitateko kide guztiak izan beharko dira etxebizitzaren titularrak, zuzeneko ondorengoak izan ezik.

Pertsona batek eskatu arren, eskatzailea ezkondua edo Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuta badago, eta ondasunak banatzeko ezkontzazko edo ondarezko erregimen ekonomikoa barik, beste bat badute, bizikidetzaren unitateko aztertzerakoan bere bikotekidea ere hartuko da aintzat ondorio guztietarako.

Bikote batek zinpean badiu harreman afektiboa daukala eta, zinpean, konpromisoa hartzen badiu ezkontzeko edo Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatzeko, esleipen lehiaketan parte hartzeko bizikidetzaren unitateko onartuko da bikote hori. Esleipendun izanez gero, eta salerosketa kontratua publiko bihurtu aurretik. Eskatzaileei eskriturak egiteko deitutakoan baldintza hori bete barik badago, ez betetzeak berekin ekarriko du esleipenari uko egitea. Horretara helduz gero, sustatzaileak kontratua desegingo du eta esleipendunek ez dute eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko, aurreratutako dirua jasotzeko eskubidea baino ez dute izango, baina interes barik.

Bizikidetzaren unitate gisa etxebizitza eskatuz gero, ez dago aukerarik norbanako moduan ere eskatzeko.

11. artikulua.- ETXEBIZITZARIK EZAREN SALBUESPENAK:

Autonomiako arauetan etxebizitzaren beharrezkoari buruz ezarritako salbuespenez gain, honakoak ere har daitezke etxebizitzarik ezaren salbuespen gisa:

- a) Bizikidetzaren unitateko kideren bat beste etxebizitza baten baterako jabea izatea, titulua edozein dela ere, ohiko egoitza eratu gabe. Kasu horretan, etxebizitza berriaren eskriturak egin aurretik bere partaidetza-kuota besterendu duela egiaztatuko beharko da.
- b) Etxebizitza baten jabetzan daukan partaidetza %50 baino gutxiagokoa denean edo, portzentaje horren modukoa edo gehiagokoa bada, berau erabiltzea eragozten duen ebazpen judizialen bat dagoenean. Era berean, etxebizitza berriaren eskriturak egin aurretik bere partaidetza-kuota besterendu duela egiaztatuko beharko da.
- c) Bizikidetzaren unitateko kideren batek (edo guztiek), hurrengo artikuluan xedatutako egoitza-mugartetik kanpoko etxebizitza baten titularrak izatekotan, udal etxebizitza tasatuen esleipenean parte hartu ahal izango du; era berean, etxebizitza berriaren eskriturak egin aurretik etxebizitza hori besterendu duela egiaztatuko beharko da.
- d) Bizikidetzaren unitatean minusbaliotasun-mailaren bat duen kideren bat badago (administrazio eskudunak ziurtatuta), eta ohiko egoitzarako ezarrita

duen eraikinak ez baditu betetzen irisgarritasunari buruzko baldintzak eta oztopo arkitektonikoak gainditzeko igogailurik edo bestelako goragailurik ez badago.

- e) Bizikidetzaren unitatean 70 urte baino gehiagoko pertsonaren bat badago, eta ohiko egoitzarako ezarrita duen eraikinak ez baditu betetzen irisgarritasunari buruzko baldintzak eta oztopo arkitektonikoak gainditzeko igogailurik edo bestelako goragailurik ez badago.

D eta E kasuetan, lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera nahitaezkoa izango da bere jabetzako etxebizitza Udalaren, beste herri-administrazioen baten edo herri-administrazioen menpeko baltzu publikoen alde lagatzeko agiriak ematea, ondoren hirugarrenen alde adjudikatzeko etxebizitza hori (jabetzan zein alokairuan), udalak tasatuko duen zenbatekoan, udal etxebizitza tasatuen edo babesekoaren erregimenaren barruan. Udalak, beste administrazio batek edo baltzu publiko batek etxebizitza eta eranskinak erostea erabakiz gero, tasazioan etxebizitza horri emandako balioa emango lioke erosleak etxea eskualdatu nahi duenari, erosleak berak egindako balorazioaren arabera. Nolanahi ere, lagatuko higiezinaren balorazioak gehieneko muga izango du beti: esleitu zaion sustapenari aplikatutako modulu (prezioa metro karratuko) bera aplikatuko zaio lagatuko etxebizitzari, eta, gainera, balio-galera eta egin beharreko konponketen balioa kenduko zaizkio, beste esleipendun batek erabili ahal izateko moduan utzi behar delako etxebizitza hori, beti ere, indarrean dagoen araudia bete behar dela kontuan hartuta, irisgarritasunarena izan ezik. Udalak ez badu etxebizitza hori erosteko eskubidea erabiltzen, eta ahalmena ez badu beste administrazio edo baltzu publiko baten eskuetan uzten, esleipendunak beste bati besterendu behar dio etxebizitza, esleitu zaion etxebizitza erosi ahal izateko, eta konpromiso hori partaidetza-eskaeran jaso behar du.

12. artikulua.- UDALERRIAN BIZITZEAREN BALDINTZAK

Udal etxebizitza tasatu bat edo prezio tasatuko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko ezinbestekoa da Lehiaketaren Oinarriak argitaratzen direnerako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea.

Lehiaketaren oinarrietan aukera dago Zaldibarren erroldatutakoei lehentasuna emateko, baita eskualde honetatik kanpo erroldatutakoen aldean eskualdean erroldatutakoei lehentasuna emateko ere. Bestetik, gerta liteke erroldaren antzintasunari baloratzea.

Hala ere, sustapen bakoitzean hutsik geratzen diren etxeak antzintasunaren eta erroldaren baldintza betetzen ez dutenen artean esleitu ahal izango da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta badaude interesdun horiek. Udalak aukera dauka sustapen bakoitzean zehazteko zein izango den hartzaile, deialdia arautzen duten oinarrietan xedatuz gero.

13. artikulua.- KALIFIKAZIOA

1. Bai erregimen orokorreko prezio tasatuko etxebizitzaren eta udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioa, bai erregimen bereziko kalifikazioa Alkatetzaren ebazpenaren bidez ezarriko dira, edota hala badagokio, Osoko bilkuraren bidez, sustatzaileak eskatuta.

2. Hirigintza plangintzan berariaz erabilera horretarako kalifikaturiko lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioarekin batera eraikitzekeo lizentzia eskuratu behar da, eta ez da lizentzia hori emango ez baldin bada eskatzen edota kalifikazioa ez bada egokitzen jotzen.

3. Behin-behineko kalifikazioaren dokumentuan etxebizitza bakoitzaren gehieneko salmenta prezioa zehaztuko da, garaje eta trasteleku atxikiak aintzat hartuta.

4. Lehen erabilerako hirigintza lizentzia eskuratzeko, beharrezkoa izango da, aldeztatik edo aldi berean eta sustatzaileak hala eskatuta, erregimen orokorreko edo erregimen bereziko prezio tasatuko etxebizitza/udal etxebizitza tasatu direla adierazten duen behin betiko kalifikazioa eskuratzeko. Horrez gain, egiaztatzea egin behar da etxebizitza eta bere erantsiak behin-behineko kalifikazioaren zehaztutakoaren arabera egin direla.

5. Hirigintza plangintzak berariaz erabilera horretarako kalifikatu ez dituen lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzak Prezio tasatuko etxebizitzatzat edo udal etxebizitza tasatutzat jo ahal izango dira edozein unetan, eta kalifikazioa lortutakoan, udal etxebizitza tasatuen erregimen juridikoa aplikatu ahal izango zaie. Kasu horretan, kalifikazioa lortzeko ez da oztopo izango honako ordenantza honek ezarritako baldintza teknikoak eta diseinuko baldintzak ez betetzea.

14. artikulua.- PREZIO TASATUKO ETXEBIZITZAREN KALIFIKAZIOAREN ONDORIOAK

Prezio tasatuko etxebizitzak -garajeak eta trastelekuak barne- "prezio tasatuko kalifikazioa" izango dute hamar (10) urtez. Obra berriko etxebizitzetan: etxebizitzaren lehen salerosketaren eskritura egiten denetik zenbatzen hasita. Beheko solairuetako lokalak birgaitzearen edo banantzeen ondorioz sortutako etxebizitzak: lehen erabilpeneko lizentzia ematen zaienetik zenbatzen hasita.

Ondorioz, hamar urteko epe hori behin betiko egongo da lotuta eskualdatzeko gehieneko prezioari (ordenantza honetan zehazten da), eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari (lehenik eta behin, Udalaren edo administrazio jardulearen alde, eta, nolatan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren alde, subsidiarioki). Horrez gain, aukera dago zozketako oinarrietan Bizkaiko Foru Aldundiaren edo Aldundiaren menpeko baltzu publikoaren alde jasotzeko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea.

2. Prezio tasatuko etxebizitzaren bigarren edo hortik aurrerako inter vivos eskualdaketen gehieneko prezioa: ezin izango du gainditu 2,3 indizea,

eskualdatzeko unean indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez. Sustapen pribatuko etxebizitzaren kasuan 2,5 indizera iritsi ahal izango da. .

3. Etxebizitzak lurrazaleko jabetzaren erregimenean lagatzen baldin badira, bigarren eskualdatzeetan nahiz geroagokoetan, prezioa hau izango da: gehienez, hasierako erosketan ordaindutakoa, KPIren aldaketak aplikatuz eguneratuta, eta honako kopuru hauek kenduta: urteko %0,5, babeseko 10 urtetan zehar.

4. Lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen duen erakundeak, perituaren txostenaren arabera etxebizitza beste bati esleitu ahal izateko, honako hau deskontatu ahal dio prezioari: etxebizitzan eta etxebizitzaren erantsietan dauden kalteen zenbatekoa.

Ondasun higiezinan egin diren hobekuntzek (halakorik egin bada), handitu egingo dute besterentze prezioa, baldin eta Udal administrazioaren obra lizentziarekin egin badira eta halaxe egin direla egiaztatu ahal bada. Era berean, hobekuntza horiek baloratzeko hauxe hartuko da kontuan: lizentzia eskatzerakoan aurkeztutako aurrekontua, harrezkero izandako balio-galera eta zelan dagoen zainduta.

15. artikulua.- UDAL ETXEBIZITZA TASATUAREN KALIFIKAZIOAREN ONDORIOAK

1. Legeak xedatutakoaren arabera, udal etxebizitza tasatu gisa kalifikatutakoak, garaje eta trasteleku atxikiak barne, etxebizitza babestuztat kalifikatuko dira behin betiko. Ondorioz, behin betiko egongo dira lotuta eskualdatzeko gehieneko prezioari (ordenantza honetan zehazten da), eta lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubideari (lehenik eta behin, Udalaren edo administrazio jardulearen alde, eta, nolana ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren alde, subsidiarioki).

2. Bizien artean bigarrenenez edo aldi gehiagotan eskualdatutako udal etxebizitza tasatuen gehieneko prezioa izango da hurrengo irizpide hauek ezarritakoan kalkulaturakoa:

- Nolanahi ere, ezin izango dute gainditu 2,2 indizea, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez. Sustapen pribatuko etxebizitzaren kasuan 2,5 indizera iritsi ahal izango da.
- Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuak: goia jota babes ofizialeko etxebizitza tasatuei autonomia erkidegoan aplikagarri zaiena. Nolanahi ere, ezin izango dute gainditu 1,7 indizea, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez.

3. Etxebizitzak lurrazaleko jabetzaren erregimenean lagatzen baldin badira, bigarren eskualdatzeetan nahiz geroagokoetan, prezioa hau izango da, gehienez, hasierako erosketan ordaindutakoa, KPIren aldaketak aplikatuz eguneratuta, eta honako kopuru hauek kenduta:

urteko %0,5 lehen 30 urteetan
urteko %1 hurrengo 20 urteetan.
urteko %2,6 azken urteetan.

4. Lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen duen erakundeak, perituaren txostenaren arabera etxebizitza beste bati esleitu ahal izateko, honako hau deskontatu ahal dio prezioari: etxebizitzan eta etxebizitzaren erantsietan dauden kalteen zenbatekoa.
Ondasun higiezinan egin diren hobekuntzek (halakorik egin bada), handitu egingo dute besterentze prezioa, baldin eta Udal administrazioaren obra lizentziarekin egin badira eta halaxe egin direla egiaztatu ahal bada. Era berean, hobekuntza horiek baloratzeko haxe hartuko da kontuan: lizentzia eskatzerakoan aurkeztutako aurrekontua, harrezkero izandako balio-galera eta zelan dagoen zainduta.

16. artikulua.- LEHENTASUNEZ EROSTEA ETA ATZERA ESKURATZEA

1. Prezio Tasatuko Etxebizitzen titularrek (kalifikazioko lehen hamar urteetan) eta Udal etxebizitza tasatuen titularrek, edozein dela ere haien erregimena, Udalari edo administrazio jarduleari eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari – lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen titular subsidiarioa den aldetik- jakinarazi beharko die besterentzeko erabakia. Lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu ahal izan dadin, honako hauek ere adierazi beharko ditu: aurreikusitako prezioa eta ordainketa modua, aurreikusitako eskualdatzearen gainerako oinarritzko baldintzak eta jakinarazpenak jasotzeko helbidea. Eskubide hori gauzatu ahal izango da bi hilabeteko epean, jakinarazpena Udalaren edo administrazio jardulearen erregistroan eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren erregistroan sartu eta biharamunetik kontatzen hasita. Erakunde batek baino gehiagok gura badu eskubide hori erabili; besterendu nahi den etxebizitzaren sustatzailea –herri-administrazioa edo baltzu publikoa- da lehendabizikoa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra bigarren mailan geratzen da.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako epean ez bada lehentasunez erosteko eskubidea gauzatzeari buruzko berariazko ebazpenik jakinarazi, aurreikusitako besterentzea libreki gauzatu ahal izango da.

3. Artikulu honetan eskatutako jakinarazpena ez bada egin, legez nahitaezkoa den artikulu horretako edukiren bat ez bada adierazi, edo eskualdaketarengatik ordaindutako diru kopurua txikiagoa bada edo baldintzak kostu-bide gutxiagokoak badira dagokion administrazioari jakinarazitakoak baino, Administrazio horrek atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du bi hilabeteko epean, besterentzearen ezagutza osoa izan eta hurrengo egunetik hasita.

17. artikulua. KONTRATUEN ONIRITZIA

Prezio Tasatuko Etxebizitzak eta Udal etxebizitza tasatuak lagatzeko kontratu guztiek, erabateko jabetzakoak, lurrazaleko jabetzakoak direnek zein alokairuan daudenek, udal administrazioaren oniritzia jaso beharko dute. Oniritzirik gabe, ezin izango dira Jabetza Erregistroan sartu.

18. artikulua. ERREGISTRATZEA

Prezio Tasatuko Etxebizitza gisa edo Udal etxebizitza tasatu gisa behin betiko kalifikazioan jasoko da etxebizitzen –eta etxebizitzei atxikitako garajeen eta trastelekuen- erregimena eta gehienezko prezioa. Udalak kalifikazio hori jakinaraziko dio dagokion Jabetza Erregistroari, eragindako ondasunetan jasota gera dadin eta erregistroaren publikotasuna era egokian egin dadin. Alde batetik, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari (Udalaren edo administrazio jardulearen alde, edo subsidiarioki, autonomia erkidegoko Administrazio orokorraren alde aplikatuko zaio erregistroaren publikotasuna). Bestetik, ordenantza honetan ezarritako eskualdatzeko gehienezko prezioari era iraunkorrean atxikita egoteko duten mugari aplikatuko zaie.

19. artikulua . PREZIO TASATUKO ETXEBIZITZAK eta UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

1. Prezio Tasatuko Etxebizitzak eta Udal etxebizitza tasatuak udal sustapenetan (beste administrazio batenak edo herri-administrazio baten mendeko baltzu batenak) edo sustapen pribatuetan adjudikatze prozedura zozketa bidezkoa izango da. Sustapen bakoitzerako egiten den deialdian sartutako eskatzaileen artean egingo da zozketa; horretarako, Ordenantzan eskatutako baldintzak zein deialdi bakoitzerako onartutako oinarrietan ezarritakoak bete behar dira, 23. artikuluan ezarritakorako izan ezik, hau da, zozketetan eman barik geratzen diren etxebizitzetarako izan ezik.

Lehiaketaren oinarriak Zaldibarko Udalak edo Udalaren baltzu publikoak idatzi eta onartuko ditu eta udaletxeko iragarki-oholean jarriko dira ikusgai, publizitate eta gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak beti bermatuz. Hori dela eta, publizitatea egiteko beste bide batzuk ere erabili daitezke. Oinarrietan hauxe zehaztu behar da: aurkeztu beharreko dokumentazioa, jakinarazteko erak, eskatzaileen baldintzak, esleitzeko prozedura, epeak eta etxebizitzak esleitzerakoan Ordenantza egokitzeko eta ulertzeko behar den guztia.

Oinarrietan interpretazio-arazorik edo hutsunerik suertatuz gero, eta Ordenantzan bertan zein bestelako legerian irtenbidea bilatu ezean, alkateak erabaki ahal izango du.

Nolanahi ere, zozketa deialdia jendaurrean jarri beharko da. Hori dela eta, udaletxeko iragarki-oholean jarriko da iragarkia, eta publizitatea egiteko bestelako bide batzuk ere erabili daitezke. Udalak edo Udalaren baltzuak egin behar du zozketa, udal idazkariaren aurrean edo notarioaren aurrean.

Prozedura horri berari jarraitu ahal izango zaio Udalaren hala hitzartutako sustapenetan.

2. Udala edo udal batzuak ez beste sustatzaile publiko zein pribatuen kasuan, haiek ezarriko dute esleipen-prozedura, beti ere publizitate eta gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betez gero. Hala ere, lehiaketaren oinarriak Zaldibarko Udalak onartu behar ditu beti, eta sustatzaileak egindako iradokizunak kontuan hartu ahal izango ditu. Kasu horretan erakunde sustatzaileak egingo du zozketa gardentasun osoz. Dena dela, erakunde horrek esleitutakoen eta kanpo geratutakoen zerrenda emango dio Udalari, Ordenantza eta aipatutako

printzipioak betetzen direla egiaztatzeko eta udalerrian zabalkundea emateko informazio horri.

Eskatzaileek aukera dute kanpo utzi izanaren erabakiaren edo ebazpenaren aurkako errekurtsua jartzeko eta alkateak dauka eskumena errekurtsu horien gainean erabakitzeko. Era berean, organo horretara jo behar dute Oinarrien edo Ordenantzaren aurkako egintzen kontra egiteko.

3. Udal etxebizitza tasatuak esleitzeko egingo diren zozketen oinarrietan kupoak ezarri ahal izango dira. Horrek erraztu egingo du etxebizitza kopuru jakin bat etxebizitza eskuratzeko zailtasun edo beharrian bereziak dituen gizarte talderen bateko pertsoneri esleitzea. Horretarako, etxebizitza sustapen bakoitzean, esleitzeko lehentasun-irizpideak ezarri ahal izango ditu Udalak, arrazoiz azalduta. Horrela, deskribatutako lehentasun egoeratan dauden pertsonak lehentasuna izango dute ondorengo lehentasun-multzoetan dauden gainerako pertsonen aurretik. Lehentasun-multzo bakoitzean zozketa bidez egingo da esleipena, artikulua honetako lehenengo paragrafoan xedatutakoari jarraituz.

4. Salbuespen gisa, sustapen bakoitzeko zozketatik etxebizitza kopuru bat bereiztea erabaki daiteke, Udalak beharrian sozialei alokairu babestuen bidez edota prekarioan lagata erantzuna eman diezaien. Hori guztia bizilekua berriro hartzeko eskubideari kalterik egin gabe; horretarako etxebizitzak ez dira zozketatuko.

5. Halaber, Udalak beharrezko etxebizitza kopurua gorde ahal izango du lurzorua legeetan eta hirigintzako garapen plangintzan ezarritako berriro ostatua emateko eskubideak gauzatzeko.

6. Udal etxebizitza tasatu baten onuradunaren bizikidetz-unitateak familia ugariaren legeko muga gainditzen badu, haren etxebizitza trukatu ahal izango du (jabetzan, lurrazaleko jabetzan zein alokairuan izan), sustapen berri bakoitzean talde horrentzat gordetako etxeetan erregimen bera duen batez, beti ere, bere bizikidetz-unitaterako edota bere premietarako etxebizitza txikia dela egiaztatuz gero.

Jabetzaren edo lurrazaleko jabetzaren kasuan, etxebizitza eskuratzen duenak udal etxebizitza tasatu berriaren eta utzitakoaren arteko prezio aldea ordaindu beharko du, ordenantza honen 11. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera eguneratuta. Familia ugariaren kopurua handiagoa bada talde horrentzat gordetako etxebizitzena baino, etxebizitzak zozketatu egingo dira.

Errenta uzten duen maizterrak ordaindu beharko ditu epeak edo hitzartutakoak ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainak.

20. artikulua. BIZILEKUTZAT HARTZEKO BEHARRA

1. Salerosketako kontratuetan zein alokairu kontratuetan baldintzazko klausula bat gehituko da. Klausula horren arabera, onuradunak etxebizitzan bizitzeko eta han erroldatzeko betebeharra hartzen du. Horretarako bi hilabeteko epea izango du, dokumentua sinatzen duenetik zenbatzen hasita. Baldintza hori betetzen ez bada,

kontratua suntsitu egingo da, eta etxebizitzaren jabe edo onuradun izatea kenduko zain onuradunari.

2. Esleipendunek esleitu zaien etxebizitzan bizi behar dira eta etxe hori erabili behar dute, eta inolaz ere ezin diote beste bati laga.

3. Esleipendunek udal etxebizitza tasatuak benetan okupatu eta erabiltzen dituztela egiaztatzeko, sartzan utzi behar diete udal zerbitzuei, eta horretarako Udalak ez dauka aurretik abisatu edo jakinarazi beharrik. Etxean bizi direla egiaztatzeko ez da nahikoa esleitutako etxebizitzan errolatuta egotea.

21. artikulua. ETXEBIZITZA BERRIAK EROSTEA

Esleipendunek edo bizikidetzta-unitateko kideek beste etxebizitza bat erosten badute, Zaldibarko Udalari jakinarazi behar diote. Hori gertatuz gero, Zaldibarko Udalak edo, bestela, EAeko Administrazio Orokorrak esleitutako etxebizitzaren jabetza kenduko die Ordenantzan okupatuko gabeko etxeei buruz xedatukoaren arabera. Etxebizitzaren jabetza kendu eta gero, beste bati emango diote, errentan edo salerosketan, desjabetutako etxebizitzaren kalifikazioaren erregimenari dagokion baloreari.

22. artikulua.- BIZILEKUTZAT HARTU GABEKO ETXEBIZITZEN DESJABETZEA

Udal etxebizitza tasatuen onuradun orok du adjudikatutako etxebizitzan bere ohiko bizilekua ezarri eta mantentzeko betebeharra. Onuradunen batek betebehara hori betetzen ez badu, edota Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, Udalak edo subsidiarioki Autonomi Erkidegoaren Administrazioak gauzatu egingo du nahitaez desjabetzeko eskubidea, indarrean den legedian onartua.

23. artikulua.- ESKATZAILEEN ERREGISTROA

“Zaldibarko prezio tasatuko etxebizitzan eta udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroa” sortuko da eta Udalak kudeatuko du. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztiek eman ahal dute izena erregistro horretan. Horretarako, eskaera—eredua bete behar dute eta Ordenantzan jasotako baldintzak betetzen dituztela ziurtatu.

Inskripzio-hurrenkeraren arabera, onartutako eskatzaileei eskubidea esleituko zaie Zaldibarren sustatzaile pribatu zein publikoek eraikitako bi motatako babeseko etxeen artean aukeratzeko. Hona hemen aukeratzeko izan dezaketena: zozketatu arren, hutsik geratu diren etxebizitzak, inori esleitu ez zaizkiolako; etxebizitzarik ez izateko baldintzaren salbuespen kasuetan Udalari eman zaizkion zaharberitutako etxebizitzak; etxeen banaketatik edo lokalak etxe bihurtzearen ondorioz sortutako etxebizitza tasatuak. Horretara, bada, nahi duten etxea erosteko aukera izango dute honako hau betez gero: lehiaketa arautzen duten Oinarrietan jasotako prezioaren

barruan egotea, prezio horiek kontsumo prezioen indizean oinarrituta gaurkotzea (zozketa egin zenetik eta salerosketa pribatua sinatzen den arteko denbora tartearen arabera) eta Ordenantzaren jasotako mugekin.

Babeseko ezelango etxebizitzarik ez badago hutsik, Errolda honetan izena ematen dutenek automatikoki egiten diren zozketetan hartuko dute parte bestelako eskaerarik egin barik, zozketarako berariaz izena ematen duten eskatzaileen baldintza beretan.

Nolanahi ere, edozein unetan eskatu ahal izango zaie eskatzaileei Ordenantzako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Alkatearen Dekretu bidez onartuko dira eskatzaileak, onartu behar badira. Eskaera aurkezte hutsarekin eskatzaileek baimena ematen diote Udalari euren datuak sustatzaileei lagatzeko, Zaldibarren etxebizitza tasatuak egin eta oraindik saldu barik edo alokatu barik dituzten sustatzaileei, alegia.

XEDAPEN GEHIGARRIA

